

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumenak eta Baztango arrantzaleen klubak ibaiak zaintzeko protokolo bat sinatu dute Bidasoako arroa babesteko

Nafarroan sinatzen den ezaugarri hauetako lehenengoa da

Asteartea, 2017.eko abuztuak 8

Nafarroako Gobernuko Zuzendaritza Orokorrak eta Baztango Ehiztari eta Arrantzaleen Kirol Elkarteak Nafarroako ibaiak zaintzeko lehen

[protokoloa](#) sinatu dute, Baztan-Bidasoa eta Leitzaran ibaien ingurua elkarrekin babesteko; baita arroko Natura 2000 Sareak babestutako eremuetan ere bai (Bertizko Jaurerria, Belate eta Artikutza).

Akordio gaur goizean sinatu dute Bertizko Natura Parkean Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako zuzendari nagusi Eva Garcia Balaguerrek eta klubeko kudeatzaile Ana Altzurik.

Ekimena LIFE-IREKIBAI Europako proiektuaren barruan sortu da, eta azken urtean Nafarroan egindako arrantzaren partaidetza-prozesuaren ondorioak jasotzen ditu. bere helburua da herritarrek ibaien kontserbazioan eta hobekuntzan, eta aipatutako arroko Natura 2000 kontserbazio-eremu berezien kudeaketan parte hartzea, Ingurumeneko Zuzendari Nagusi Eva Garcia Balaguerrek protokoloa sinatu duen ekitaldian adierazi duen moduan. Horrez gain, hauxe azpimarratu du: "elkarlaneko eredu bat egin nahi dugu, gure komunitateko ibai-inguruetan proposatzen diren antzeko ekimenetarako suspergarriak izateko".

"Gure instalazioetan egiten den lana ongi ezagutzea nahi dugu", jarraitu du. Hori dela eta, Lesakako Nasara eta Oronoz-Mugairiko pizsifaktoriara egindako bisitak sustatuko ditugu. Han egiten den lan guztiaren berri emateko. Horri esker, gure ibaien benetako egoera zein den hobeto jakingo dugu".

Bestalde, Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteko kudeatzaile Ana Altzurik gogoratu du elkarteak dagoeneko lankidetzajardueraz luzea duela Ingurumenarekin. "Urte guztietan elkarlanean ibiltzen gara Departamentuekin haraneko ibaietan egiten diren amuarrain-zenbaketatik,



Ezkerretik eskuinera: Joseba Moreno, Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteko presidente ohia, Ana Altzuri, kudeatzailea, Eva García Balaguer, Ingurumeneko zuzendari nagusia eta Nekane Vizcay, Ibaien Berrikuntza eta Arrantza Kudeaketako burua.

eta Elkarreak batik bat lehortzeko arriskuan dauden errekaak zaintzen dira", gaineratu du.

Elkarrea 1948. urtean sortu zen, eta gaur egun, mila bazkide baino gehiago ditu Baztanen, Urdazubin, Zugarramurdi, Oieragin eta NARBARTEN. Protokolo hau sinatuz hasieratik egiten ari den arrantza-kudeaketan elkarlana finkatu nahi du, eta bazkideen eta herritarren artean ingurumena kontserbatzeko eta zabaltzeko jarduera gehiago egin nahi dira. Horrenbestez, helburua da balio ekologiko horiek gordetzea da, arrantza-espezieen eta arroko habitaten onurarako; baita eragindako herritarako ere.

Akordioak Basozainekin elkarlanean aritzea barne hartzen du, ibaiarekin lotutako espezieen azterketa teknikoak, lursailari buruzko ekintza jakinak edo espezie basatien egoera hobetzeko ekintzak egiteko. Klubak boluntario egonkorren sare bat formalizatzeko eta ibai-ekosistemaren eta arrantza-kudeaketaren hobekuntzak proposatzeko. Horrez gain, arrantzaleentzako, ibaiaren beste erabiltzaile batzuentzako eta bertako herritarren sentsibilizazio-ekintzak jasotzen ditu, arrantza iraunkorraren kontzeptuak hedatzeko.

Zenbait eragile historiko eta geografiko direla eta, Bidasoa ibaiak bere jarraitutasuna eteten duten hainbat eragozpena metatu ditu. Horren ondorioz, ekosistemak aldatu dira eta espezierik ahulenen (erdi uretakoak diren ugaztunak, hala nola bisoia edo desmana, eta zenbait arrain, izokina esaterako) banaketa-eremua murriztu edo zatitu da. Horrez gain, isolamendu genetikoa eta beste eragin batzuk direla eta, ezinbestekoa da elkarlanean aritzea, haien jarraitutasuna eta berreskuratzeko gaitasuna bermatzeko eta egon daitezkeen presio berriei aurre egiteko.

Izokin gutxi euri faltarengatik

Udaberriko euri eskasak joan den uztailaren 31n Bidasoa ibaiaren azken arrantza-kanpaina izokin kopuruak behera egitea eragin du. Zehazki, aurten 33 ale harrapatu dituzte; baimendutako 78 aleen aldean. Departamentuak egindako txostenaren aurrerapenaren arabera, udaberriko euri faltak Bidasoatik ibiltzen diren emariak udakoak izatea ekarri du, udaberrikoak baino, beraz, izokin kopurua beste urteetako baino askoz ere txikiagoa izan da.

Lehen izokina edo "lehenbizikoa" kanpaina hasi eta berehala harrapatu zuten, maiatzaren 1eko 7:12 an. 80 cm-ko eta 4,7 kg-ko ar bat zen, "Villanueva" gisa ezaguna zen putzuan koilaratxo baten bidez arrantzatutakoa. Geroago, maiatzean zehar, beste bost izokin gehiago bakarrik harrapatu ziren; ekainean, 10 izokin, eta uztailan, 17 ale (guztien % 52).

Beste kanpaina batzuetan dagoeneko ohikoa denez, arrantzatutako lehen izokinak izan ziren handienak, eta denboraldia aurrera joan ahala izokinen tamaina txikiagotu egin zen. Denboraldian harrapatutako izokinen % 61ek negu bat emana zuten itsasoan, eta % 39k gutxienez bi negu emanak zituzten itsasoan.

Arrantzatutako izokinen % 73 jatorriz basatiak ziren, eta gainerako % 27 (9 izokin), Nafarroako Gobernuaren Mugairiko piszifaktorian hazitako eta jaiotako izokinak.

Harrapaketak beste urte batzuetan baino banatuago egon dira ibaian zehar. "Villanueva" putzuan 12 harrapatu dituzte, 4, Montoian, eta 3, Eskailerako putzuan. Gainerakoak beste bederatzi lekutan. 2017ko denboraldian harrapatutako izokinen erdia baino gehiago uztailan arrantzatu dira.